

2023ko abenduaren 21eko bilkuran, Zarauzko Udalbatzarrak behin betiko onespena eman zion 24 —Errotaberri— sektore industrialeko plan partziala aldatzeko dokumentuari. Espedientea i-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUk sustatu du, 4C partzelan transformazio-azpiestazio elektriko bat eraikitzeko.

Onartu den ingurumen-azterketa estrategikoa 2022ko abendukoa da, Basoinsa SL Ingenieria Ambiental enpresak idatzitakoa. Eta onartu den hirigintza-antolamenduaren dokumentu batekina 2023ko azarokoa da, Trion Planes y Servicios SLPk idatzitakoa.

Akordioaren testu osoa, aldatutako ordenantzak, ingurumen laburpena eta haren aurka jarri daitezkeen errekursoak argitaratuta daude **[Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean \(33 zk., 2024ko otsailaren 15ekoa\)](#)**.